

Aho batez onartutako dokumentua, Osoko Bilkurako kideek 2020ko ekainaren 5eko batzorde iraunkorreko bileran egindako ekarpenekin.

Gelako hezkuntzaren etenak eragin oso larriak izaten ahal ditu ikasleen ikasteko gaitasunean, eta, bereziki, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleengan eta hezkuntza bereziko ikasleengan. Familia pobreenetako haurrek jada ia bost aldiz probabilitate gehiago dituzte Lehen Hezkuntzako eskolara ez joateko, familia aberatsenetako haurrek baino. Gainera, osasun inguruabarren ondorioz luzatu den itxialdi honek eten egin ditu eskolek –hezkuntzaz gain– ematen dituzten funtsezko zerbitzu batzuk, hala nola txertaketa, eskolako elikadura, osasun mentalerako sostengua eta orientazio psikosoziala. Horrez gain, estresa eta antsietatea sortu bide ditu, ikaskideak elkarrekin aritzea galdu delako eta eguneroko jardunak aldatu direlako. Egoera ahulean dauden ikasleek hein handiago batean pairatuko dituzte ondorio txar horiek, ororen gainetik migratzaileek, bortxaz mugiarazi dituztenek, gutxiengoetakoek, desgaitasunen bat duten haurrek eta erakundeen zaintzapean bizi direnek. Ikastetxeak berriz irekitzerakoan, segurtasun baldintza batzuk ezarri behar dira, eta estatuak nahiz Foru Komunitateak COVID-19ari emandako erantzun orokorraren ildoan ibili, zentzuzko neurri guztiak hartuta, haiekin babesteko ikasle, langile, irakasle eta familiak.

Anitz jenderen lana goraiatu beharra dago, irakasleena, ikasleena, familiena, zuzendaritza taldeena, hezkuntza administrazioarena eta irakasle ez diren langileena, eta nabarmendu, orobat, hezkuntza komunitateko kide guztien ahalegina, dedikazioa, erantzukizuna eta egokitze gaitasuna. Orain arte egindakoa eta aurrerantzean egingen dena baliagarriak izan behar dira datorren ikasturtea eta ondorengoak diseinatzeko. Hezkuntza Departamentuaren Talka Plana abiaburu gisa ikusten dugu, eta, hortaz, beharrezkoa da horrekin jarraitzea, inplementatu denari eutsiz, etorkizuneko lanaren oinarri eta euskarri izan dadin hein handi batean.

Hezkuntzak (guk ulertzen dugun moduan bederen) kontaktua eskatzen du. Behar du irakasleen, ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen arteko harremana; azken buruan, ikasgelako lana eskatzen du, aurrez aurreko jarduna. 2019-2020 ikasturtearen amaieran, salbuespenezko egoera bati eman diogu irtenbidea; horrek galdatzen zuen presarekin eman ere. Alabaina, online hezkuntzarako egin den proposamena landu beharra dago, 2020-2021 ikasturtean hura ezartzen jarraitu ahal izateko. Eta, horretarako, segitu beharra dago Hezkuntza Departamentuak hasitako lanarekin, eta giza baliabideak eta baliabide materialak behar zaizkio esleitu. Bestela, ezin izanen dira inola ere parekatu online hezkuntza eta aurrez aurrekoa.

Horrez gain, beharrezkoa izanen da ikastetxeei ekipamendu teknologikoa ematea eta irakasleentzat garatzea sareko baliabideak erabiltzeko prestakuntza intentsiboa; halaber,

tresna eta plataforma digitalak baliatzeko prestakuntza planak diseinatzea ikasleentzat. Baitezpadakoa da baliabide eta gaitasun digitalak indartzea, bai plataformen bidez, bai irakasleen erabilera pertsonalerako eta prestakuntzarako gailuen bidez.

Pandemiaren bilakaerak jarraitzen badu pertsonen arteko distantziari eustera behartzen eta, beraz, ezinezkoa bada talde eta etapa bereko ikasle guztiak gela berean biltzea, hainbat neurri hartu beharko dira, hala nola ikastetxeetako espazio guztiak optimizatzea, aurrez aurreko jarduera urrutiko jarduerarekin konbinatzea, edo ordutegiak egokitzea ezarritako osasun baldintzak betetzeko eta prestakuntzaren jarraitutasuna bermatzeko. Egokitu beharko dira espazioak, denborak, edukiak, metodologiak, hezkuntza materialak eta abar, beste sektore batzuetarako planteatzen diren arau eta gomendioekin bat.

Nolanahi ere, programatu beharko dira urrutiko eta online irakaskuntzarako eduki eta jarduera egokiak, eta, orobat, aurreikuspenak egin, ikasturte-zatien balizko ebaluazio ez-presentzialerako. Horri begira, aprobetxatuko dira ikasturte honetan eskola jarduerako hilabeteetan garatu diren jardunbide egokiak.

Aurreko ikasturtean eskuratu gabeko ezagutzak indartu beharra dago: lehen hiruhilekoaren zati bat eman hutsuneak betetzen eta ikaskuntzan dauden akatsak konpontzen. Ona litzateke zenbait baliabide jartzea ezagutza batzuk bereganatu ez dituzten ikasleak erreskatatzeko, eskola porrota mantendu edo areagotu ez dadin.

Egoera honek, gainera, hauxe eskatuko du: ikastetxeak hornitzea langileendako eta ikasleendako ekipamendu higieniko-sanitarioez; higieneko eta osasun-kontrolako neurriak ezartzea; mugikortasun protokoloak prestatzea ikastetxera sartzeko eta handik ateratzeko, bai eta barnean ibiltzeko ere; eta ezarritako betekizun higieniko-sanitarioei buruzko prestakuntza ematea irakasleei, ikasleei eta irakasle ez diren langileei.

Gogoeta horiek guztiak oso kontuan izatekoak dira ondorengo hiru agertoki posible hauetan:

1. Pandemiaren bilakaerari esker, hezkuntza jarduera aurrez aurre egin ahal izatea ikastetxeetan, pertsonen arteko distantziari eutsi beharrik gabe.
2. Pandemiaren bilakaerak ikastetxe guztietan pertsonen arteko distantziari eustera behartzen jarraitzea, kutsatzeak saihesteko prebentzio neurri gisa.
3. Pandemiaren bilakaerak galaraztea aurrez aurreko hezkuntza-jarduera 2020-2021 ikasturteko uneren batean, gaixotasuna berragertu delako eta, horren ondorioz, berriro konfinatu beharra dagoelako.

Eskolak berriz irekitzean, aintzat hartu behar dira batez ere ikasleen interesa eta osasun publikoaren irizpide orokorrak, oinarri gisa hartuta abantailen eta arriskuen ebaluazioa eta testuinguruaren probak (sektoreen artekoak eta espezifikoak), barnean hartuta faktore sozioekonomikoak, hezkuntzakoak eta osasun publikokoak. Analisi horrek balioko du, halaber, arriskuak gutxitzeko neurriak lehenesteko. Erabakiak hartu beharko dira betiere eutsiz Hezkuntza Departamentuak hezkuntza komunitate osoarekin duen elkarrizketa sozialari, horrek ekarriko baitu Nafarroako hezkuntzan helburu komunak zehaztea, eta aldarte ona eta arrakasta izatea.

Erabakiak hartzean ebaluatu beharko da zein den testuinguru bakoitzean ikaskuntza eta ongizatea bultzatzeko modurik hoberena, bereziki kontuan hartuz aurrez aurreko hezkuntzak dituen onurak urrutiko ikaskuntzarekin alderatzen badugu, eta aztertuz zer arrisku faktore dakartzan eskolak berriz irekitzeak.

Testuinguru bakoitzaren abantailak eta arriskuak aztertuz gero, posible da lehentasunak ezartzea eskolak –edo eskolen zati batzuk– berriz irekitzeko, eta lehenestea bai eskoletan eta komunitateetan arriskuak murrizteko jarduerak, bai urrutiko ikaskuntzan landuko diren irakasgaiak.

Balitzko agertoki guztietan, aintzat hartzen ditugu proposamen hauek, alderdi hauetan zehazten direnak:

- A. Hezkuntzan inbertitzea: baliabide materialak eta giza baliabideak. Arrakala soziala eta arrakala digitala. Segurtasuna eta osasuna
- B. Ikastetxeek autonomia izatea antolakuntzaren eta pedagogiaren arloetan.
- C. Irakasleak: irakasle taldeak, metodologia eta talde lana.
- D. Curriculumak egokitzea 2020-2021 ikasturterako eta ondorengoetarako.
- E. Ebaluazio etengabea eta azken ebaluazioa, ikasmailaz pasatzea, eta hezkuntza arrakasta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan.
- F. Itun sozial eta politikoa Nafarroako hezkuntzaren alde

A) Hezkuntzan inbertitzea: baliabide materialak eta giza baliabideak. Arrakala ekonomiko eta soziala, eta arrakala digitala. Segurtasuna eta osasuna.

Oso beharrezkoa da hezkuntzak jarrai dezan egungo aurrekontua edukitzen, eta, ahal bada, berreskura ditzan aurreko krisiarekin galdu zituen inbertsio mailak, halako moldez non egungo pandemiari eta etorkizunari heltzen ahal zaien hezkuntzak –oinarrizko ondare sozial horrek– behar dituen baliabide materialekin eta giza baliabideekin. Baliabide horiek ezinbestekoak dira talka plan bat garatzeko, horren bidez bermatu ahal izateko, bai aukera berdintasuna, bai gizarte-bazterketako arriskua duten edo egoera ahulean dauden ikasleen inklusioa. Nahi dugun arrakasta erdiesteko, ezinbestekoa da modu koordinatuan aritzea estatuko administrazioa, autonomikoa eta tokikoa, elkarlana

eginez hezkuntzan eta prestakuntzan inplikaturik dauden beste entitate eta erakunde batzuekin.

Baliabide materialak eta giza baliabideak handituz gero, posible izanen da lagun egiteko, sostengu emateko eta indartzeko jarduketak gauzatzea, ikasle bakoitzaren hezkuntza-premia bereziei egokiturik; jarduketa horiek erraztuko dute ikasle guztiek ikaskuntzan aurrera egin dezaten. Baliabide horien artean egon da aurrez aurreko ikaskuntzaren eta urrutikoaren bilakaera desberdinei erantzuteko behar den guztia; horretarako malgutu beharko da elementu hauen guztien antolaketa: espazioak, denborak, ikasle taldeak eta irakasleen talde lana. Horregatik, gaur inoiz baino gehiago, indartu egin beharko da Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioak hasitako politika; izan ere, berariazko sostengu eta errefortzuak eman beharko zaizkie edozein arrazoiengatik (adina, norberaren ezaugarriak, egoera soziala eta ekonomikoa) egoera ahulean dauden ikasleei.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak hau proposatzen du:

1. proposamena

Datorren ikasturteko plangintza prestatzean, kontuan hartu beharko dira bizi izan diren inguruabar bereziak. Ikasleen arretaren alorreko behar bereziek berekin ekar dezakete baliabide materialak eta giza baliabideak gehitzea. Baliabide horiek behar bezala banatuz gero, ikastetxeek egin ahalko dituzte **indartzeko eta laguntzeko programak** ikastetxeetako jarduerak eten diren egoera honetan kaltetuak izan diren **ikasle guztiendako**.

2. proposamena

Datorren ikasturtean barrena, indartze programa batek laguntza eman beharko die **arrakala digitala eta familien arteko arrakala** jasaten duten eta jasanen duten ikasleei, **are kontuan izanda ere Hezkuntza Departamentuak hilabete hauetan egin behar izan duen ahalegina**: azpiegituren gabezia (batez ere landa eremuetan); ez edukitzea informazioaren gizartean parte hartzeko behar diren informatika-ezagutzak eta trebeziak; orobat ez edukitzea teknologia hori ikaskuntzarako eta edukien produkzioarako erabiltzeko gaitasunik. Zailtasun horiek guztiak larritu egiten dira ikasle **zaurgarrien** kasuan, arrazoi sozial eta ekonomikoak direla medio, arrazoi digitalak ahortzi gabe.

Erronka bat abiatu da, baina garaiz iritsi beharra dago; ahalik eta lasterren, alegia. Horregatik, garrantzitsua litzateke lehenetsunak aztertzea eta Hezkuntza Departamentuak zenbait baliabide erabiltzea jada hasita dagoen lana bideratzeko eta birdiseinatzeko. Horretarako, hezkuntza plan bat behar da, online hezkuntza jorratzen duena, eta posible egiten duena hurrengo ikasturtea behar bezala hastea jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat egin ahal izateko. Jauzi horri esker, prest egon gara datorrenari heltzeko (gerta baitaiteke beste itxialdi bat behar izatea). Plan horrek lortu beharko luke

baliabideak homogeneizatzea eta online irakaskuntza antolatzea, ikaskuntzaren eraginkortasuna maximizatuta eta efizientzia arrazionalizatuta (kostu ekonomikoa, publikoa zein familiena, behar bezalako maila eta tresnak lortzeko).

Halaber, tresnak ez ezik, online eskolak antolatzeko formula berriak ere eman behar dira; ahalik eta parte-hartze handiena sustatu behar da, curriculum eta edukia egokitu, ikasleekiko tratua emozionala zaindu, bakoitzaren ikaskuntzaren jarraipena ahalbidetu eta, azkenik, ikastetxeei eta irakasleei laguntzeko jarraibideak garatu, antolamendu mailako eredu aldaketa hori errazteko... Lan eskerga, baina ezinbestean egin beharrekoa.

Arrakala digitalaren eragina arintzeko, egokiena izanen litzateke gabezia hori maileguko baliabideekin estaltzea eta, birmoldaketa honetan, erabiltzea guztiengana iristeko aukerak, baita online erritmoari jarraitu ezin dioten ikasleengana iristekoak ere, bitarteko tradizionalak erabiliz eta haiekin telefono bidezko jarraipena eginez urrutiko eredu sartu arte.

3. proposamena

Beharrezkoa da hezkuntza jarraitutasuna bermatzen segitzea **pobrezia arriskuko eta ahultasuneko egoeran bizi diren ikasle guztiendako**. Egoera honetan, arrakala digitala eragozpen handia da, baina ez dugu utzi behar horrek ikasle batzuk kanpoan utz ditzan. Familien artean hasiera beretik dauden aldeak gainditzeko, aurrera egin behar da Hezkuntza Departamentuak ikasturte honetan abian jarri duen **talka planarekin**, kontuan hartuta **aurrez aurreko hezkuntza funtsekoa dela familien arteko arrakala murrizteko**.

4. proposamena

Hezkuntza Departamentuak, hezkuntza komunitateak eta, bereziki, irakasleek egin duten ahalegina aprobetxatu beharra dago ikaskuntzako aukerak sortzeko, zeinen bidez optimizatuko baitira hezkuntzako eraginkortasuna eta ekitatea hobeto erabiliz **informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta hedatuz eta sarbidea emanaz** hezkuntza baliabide irekietara eta hezkuntzako edukiak dituzten multimedia plataformetara. Planteamendu horrek ahalbidetuko luke beste bide batzuk garatzea, aurrez aurreko ikaskuntzaren osagarri. Egungo araudi digitalaren berri eman beharko zaio hezkuntza komunitateari.

5. proposamena

Gure iritzi, oso garrantzitsua da aurrez aurreko hezkuntza lehenestea Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan, tankera horretako ahalik eta ordu gehien izanik 2020-2021 ikasturtean, ahal bada guztiak horrelakoak izanik, egiturazko egoerak ahalbidetzen badu behintzat. Zerbait egiaztatu badugu, hauxe izan da, gure sistema aurrez aurreko ikaskuntzan oinarritzen dela eta,

adin hauetan, are garrantzi handiagoa duela. Pentsatu behar da egun bakoitzean ordutegia pilotzea aukera ona dela aurrez aurreko hezkuntza hori gauzatu ahal izateko.

6. proposamena

Hezkuntza komunitateari dagokionez, azpimarratu behar da **COVID-19ari buruzko informazio argi, trinko eta zuzena trukatu behar dela**, sortzen dituen beldurrari eta larritasunari buruzko mezuak murriztu, eta nork bere burua zaintzeko estrategiak sustatu, ez bakarrik ikasleen eta familien artean, baita irakasleen eta eskolako gainerako langileen artean ere.

Higieneari buruzko informazioa ahalik eta gehien zabaltzea behar da eta guztion eskura jarri; beraz, gutxiengoen hizkuntzetara itzuli behar da, eta hurrek erraz ulertzeko moduko mintzaira batean eman.

B) Ikastetxeek autonomia izatea antolakuntzaren eta pedagogiaren arloetan

Ezinbestekoa da ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitateak –bere egungo egoeraren diagnostikotik abiatuta eta dituen bereizgarriak aintzat hartuta– **garatu ahal izatea eta garatzea parte hartzeko plan propio bat**, irakasleak, familiak eta ikasleak ahalik eta gehien inplikatu daitezen hezkuntza arreta eta, ondorioz, ikasle guztien ikaskuntza bultzatzen. Ikastetxeko proiektuek ahalbidetu eta bideratu beharko lituzkete honako hauek: aurrez aurrekoa ez den arreta digitalerako plan bat; espazioak eta gelak malgutasunez berrantolatu eta egokitzea; irakasleen talde lana; familiei informazioa ematea eta haiek parte hartzea; halaber, ikasleak inplikatzeko banakako eta taldeko ikaskuntzan. Irakasleek beren programazioetan txertatu beharko lukete aurrez aurrekoa ez den arretarako plan bat. Horrek eskatzen du eskura izatea aurreko atalean aipatutako baliabide materialak eta giza baliabideak.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak hau proposatzen du:

7. proposamena

Neurri koherenteak eskaini beharko lirateke, oraingo eskola-eredu berrezarri gabe (bere ordutegi, testu-liburu eta etxeko lanekin), horrek ez baititu aintzat hartzen ez konfinamenduaren mugak, ez sareko aukera digitalak, ez ikasleek beren ezagutza eraikitzearen gaitasuna. Halaber, bermatu beharko litzateke **sistema iragankor bat, jardunbide egokiak (hau da, testuinguru eta inguruabar jakinetan arrakasta duten esperientziak) sendotzen dituen**, eta etorkizunean oinarriak sortuko dituen hezkuntza eredu pertsonalizatuago eta digitalago batera igarotzeko.

8. proposamena

Online laneko inguruabarrek eta horretan lortutako esperientziak, nahitaezko baliabideen eskakizunak eta ikastetxeen autonomia handiagoak ezinbestekoa egiten dute (baldin eta haien esku-hartze planak koherenteak badira, eta aldeztu aurretik eskola

kontseiluek eta hezkuntzako ikuskapenak onetsirik) **baimena ematea eta laguntzea beren hezkuntza-antolaketan eta gelen nahiz espazioen antolamenduan**, irakaskuntza, ikaskuntzak eta ikasleen errendimendua hobetzeko. Ildo horretatik, beharrezkoa da zentroek beren ikastetxe proiektuan sar ditzaten **aurrez aurrekoa ez den arreta digitaleko plan bat, espazioen eta gelen antolamendua, berrikuntza metodologiaren beharrak hobeto asetzen dituen antolaketa bat, irakasleek lan malgua izatea eta taldean aritzea, eta, halaber, espazio beretan elkarrekin irakastea**. Irakasleek beren programazioetan txertatu beharko lukete aurrez aurrekoa ez den arretarako plan bat. Garrantzitsua da ikasleak ez banatzea haien ikaskuntza eritmoen arabera, eta hobeki erantzutea ikasle guztien aniztasunari.

9. proposamena

Hezkuntzako egoera ideala da ikastetxeek autonomia handiagoa izatea eta, beraz, ona da hori bultzatzea; horrez gain, **komeniko litzateke agintariak malgutasunez jardutea eta jardun eraikitzailea egitea lan egiteko molde berrien alde**, lege-esparruaren barruan, ekimenak antolatuz, koordinatuz eta publikitatearen bidez zabalduz, ahalegin guztiak norabide berean joan daitezten.

C) Irakasleak: irakasle taldeak, metodologia eta talde lana

Irakasleak gertatu dira aurrez aurreko klaseak eten diren egoera batean, eta haiek, jakina, horrelako klaseak emateko gaitasuna dute normalean. Egoera horrek –irakasleek etxetik lan egiten dutelarik– zailtasun larriak ekarri ditu ikasleekin aritzeko, bereziki egoera ahulenean daudenekin, eta ikasle guztiek ikastea lortzeko. Bat-batean, beharrezkoa izan da urrutitik hezteko, ikasturtearen amaieran geundela eta zalantza betetako etorkizun batekin. Horrek administrazioa eta irakasleak behartu ditu –isolamendu egoera batean– baliabide, estrategia eta metodologia berriak erabiltzera, eta horiek ez dira, inola ere, gehienetan orain arte erabili izan dituzten prozedura eta baliabideak bezalakoak. Horri gehitu behar zaio, ezusteko agertoki honetan zaila dela irakasle, ikasle eta familiei ematea behar duten prestakuntza.

Egoera honetan –eta hurrengo ikasturteetan ongi moldatu ahal izateko– funtsezkoa da irakasleek jasotzea irakaslanean arrakasta izateko behar dituzten baliabideak eta prestakuntza, une honetan, zeinetan hezkuntza digitalaren beharra larriki ezarri den, ohiko aurrez aurreko hezkuntzaren baliabideen ondoan. Ezinbestekoa da irakasleek gizarte osoaren babesa eta konfiantza izatea, hala lagunduko baitiegu herritar guztiontzat funtsezkoa den lan horretan.

Halaber, baldintza egokiak sortu behar dira irakasle-taldeek ezagut ditzaten beren ikasleen egoera eta ezaugarriak, zehatz ditzaten funtsezko ikaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak, ikasle guztien lana eta ikaskuntza bultzatu ditzaten, materialak parteka

ditzaten, eta modu jarraituan ebalua dezaten ikaskuntzaren progresioa, hura hobetzeko, eta elkarlanean hel diezaioaten, orobat, ikasturte bakoitzeko azken ebaluazioari.

Lankidetzako jarduna dugu irakaskuntza. Irakaskuntzaren kalitatearekin zuzenean loturiko baldintza bat da honako hau: irakasleek espazio bat izatea elkarrekin jarduteko, helburu beraren atzetik (jardun partekatua baita), eta hausnartzeko, partekatzeko nahiz beren lanak prestatzeko. Hezkuntzak berez dakarren lankidetzak hori inoiz baino beharrezkoagoa da une honetan.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak hau proposatzen du:

10. proposamena

Irakasleek bizi duten egoera honek eta etorkizuneko erronkek eskatzen dute irakasle lanari buruzko gogoeta sakon bati ekitea, horren bidez **hausnarketa berriak egiteko egungo eredu profesionalari buruz**. Bestalde, beharrezkoa da **ikasleei ikusaraztea beraiek direla ezagutzaren eraikuntzaren gakoa**, zeinahi delarik ere haien familiaren profila; eta, horretarako, eskura izan behar dituzte ezagutza eraiki ahal izateko behar diren aukera eta tresnak, kasu honetan teknologikoak eta konektibitatekoak. Hezkuntza komunitate osoak eta administrazioak lagundu egin behar dute erronka horretan.

11. proposamena

Ezinbesteko ikaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak (sortzen dituzten arazo indibidual eta kolektiboekin) izan beharko lirateke, aurrerantzean, helburu nagusi; horri erantzun beharko liokete **irakasle taldeen dotazioak, metodologiaren antolaketak eta irakasleen lanak**. Berrikuntza metodologikoa, talde-lana eta ezinbesteko ikaskuntzen gaineko arreta ongi gauzatzeko, beharrezkoa da egiaz berritzea **irakasleen prestakuntza eta haien talde-lana**. Agerikoa da aldaketa horrek denbora tarte bat behar duela, baina komenigarria da aurrera egitea helburu horretara iritsi nahirik.

12. proposamena

Uste dugu oso garrantzitsua dela ikastetxeei **baliabide teknologikoak eta materialak** ematen segitzea; orobat, jarraitzea irakasleei eta irakasle ez diren langileei ematen beren lana egiteko behar duten **prestakuntza**. Hori egiten da kalitatean, ekitatean eta inklusibitatean oinarritutako hezkuntza sistema batek eskatzen dituen elementu guztiekin, gauden testuinguru berezi hau kontuan izanda eta hezkuntza digitala txertatuta. Era berean, irakasleek, beren lana egin ahal izateko, gizartearen babesa eta konfiantza behar dute; baita autonomia eta askatasun maila handi bat ere beren lanbidean dihardutenean.

13. proposamena

Koronabirusaren krisiak agerian utzi du egungo hezkuntza sistemak zailtasunak dituela erantzuteko etorkizun hurbilari begira aurreikusi eta kudeatu beharreko eskakizun guztiei. Egungo egoera, konplexua izan arren, hezkuntza sisteman jarraibide berriak ezartzeko aukera izan daiteke; jarraibide horiek lagunduko lukete sistema eguneratzen,

hezkuntza komunitate osoaren premiei erantzun diezaien. Hori oso gomendagarria izanen litzateke plan pedagogikoa ezartzeko, egoera berrira ahalik eta gehien egokitzeke eta hezkuntza **berrikuntza sustatzeko**.

D) Curriculumak egokitzea 2020-2021 ikasturterako eta ondorengoetarako.

Bermatu beharko litzateke ikastetxeek, irakasle taldeek eta orientazioko departamentuek –datorren ikasturtearen hasieran– aintzat hartuko dituztela funtsezko ikaskuntzetan eta oinarritzko gaitasunetan izan bide diren atzerapenak, koronabirusaren ondoriozkoak, eta behar bezala egokituko dituztela curriculumak; halaber, komenigarritzat jotzen dituzten errekupeazio jarduerak egiten dituztela. Gainera, banakako laguntza bereziki zaindu behar da horren beharra duten ikasleen kasuan.

Nolanahi ere, curriculum-egokitzapena ez da bakarrik hurrengo ikasturtearen hasierako behar ezinbesteko bat, amaitzen ari den ikasturte honetan aurrez aurreko klaseak eten izanaren ondoriozkoa. Egungo curriculumen eduki bukaezinei buruz gogoeta berria egin beharra dago, hurrengo urteari eta ondorengoei begira, nahi badugu oinarritzko hezkuntzan ikasle guztiek arrakasta lor dezaten. Curriculumen ikuspuntua ere orekatu beharra dago, halako moldez non haien pisua eramaten dugun “irakatsi” behar denetik (irakasgaien oinarri den zientziak proposatzen duenaren arabera) ikasleek “ikasi” behar dutenera. Oinarritzko etapetan, horrek zerikusia du herritarren prestakuntzarekin, eta, inor kanpoan utzi gabe, denek izan beharko lukete aukera prestakuntza hori lortzeko, zeinak bere barruan izan behar baitu ikasturteetan aurrera egiten uzten duen hura: ezinbesteko ikaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak hau proposatzen du:

14. proposamena

Hurrengo ikasturtea planifikatzean –Hezkuntza Administrazioak adierazi duen bezala– segurtatu beharra dago ikastetxeek eta irakasleek aintzat hartuko dituztela **funtsezko ikaskuntzetan izan bide diren atzerapenak**, koronabirusaren pandemiak sortu duen egoeraren ondoriozkoak. Beharrezkoa da **oinarritzko gaitasunak eta funtsezko ikaskuntzak egokitzeke** prozesua egitea, **horietako batzuk ez baitira aurtengo ikasturtean garatu**.

15. proposamena

Gogoeta egin beharko da berriro ere **curriculumen eduki luzeez**, haien irakaskuntzaz eta, bereziki, ikasle guztiek **funtsezko ikaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak** eskuratzeaz (ez bakarrik gaitasun instrumentalak). Ikaskuntzek oso lotura estua izan behar dute oinarritzko gaitasunekin, zeinak landu behar baitira arlo eta irakasgai guztietan.

16. proposamena

Ikastetxe bakoitzeko orientazio taldeek tresnak prestatu behar dituzte geletarako itzulerari aurre egiteko, eta behar dena eskura jarri, beharra duten ikasleek arreta pertsonalizatua izan dezaten.

E) Ebaluazio etengabea eta azken ebaluazioa, ikasmailaz pasatzea, eta hezkuntza arrakasta haur, lehen eta bigarren hezkuntzetan, ezarrita dauden irakaskuntzetan.

Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du beharrezkoa dela berritzea ebaluazioa, errepikapena eta ikasmailaz pasatzea arautzen dituen araudia, aintzat hartuz hezkuntzaren oinarritzko etapetan funtsezko prestakuntza eman behar zaiela ikasle guztiei, hezkuntza garapenik handiena lortu ahal dezaten, betiere prestakuntza etorkizun bat izan dezaten, eta egoera onean egon daitezen herritartasun arduratsuari heltzeko, eta gizarte- nahiz lan-bizitzara ahalik eta egoera hoberenean iristeko.

Ebaluazioak jarraitua izan behar du, ikasturte bakoitzean zehar, jakina, baina baita oinarritzko etapa guztietan barrena ere. Oinarritzko hezkuntzan (Haur Hezkuntzatik DBHra, eta espero dezagun laster bigarren hezkuntza osoan), ebaluazioaren helburua ez da izan behar ikasleak “hautatzea”. Horren muina izan behar da ikasleek lortutako ezinbesteko ikaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak egiaztatzea, horrek ahalbidetzen duelarik hobekuntza jarduketak egitea ikasturtean barrena, horrela sendotzeko ikaskuntza eta gaitasun horiek; halaber bideratzen dituelarik hurrengo ikasturtean helburu berarekin egin beharreko ekintzak.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak hau proposatzen du:

17. proposamena

Beharrezkoa izanen da **berritzea ebaluazioa, errepikapena eta ikasmaila pasatzea arautzen dituen araudia**. Ikasmaila gainditzeko erabakien egiazko oinarria izan behar da oinarritzko gaitasunen ebaluazioa, barnekoa eta elkarrekin eginga. Horretarako, beharrezkoa izanen da ikasle talde bat artatzen duen irakasle talde osoak **elkarrekin** landu eta **ebaluatzea gaitasunak** eta, horren ondorioz, baita lortutako errendimendua ere. Horrela jokatz gero, ikasmaila gainditzearekin batera **orientazioa** emanen litzaioke hurrengo ikasturteko irakasle taldeari: irakasgaika egiten den deskribapen bat, azaltzen dituen zer emaitza izan diren gaitasunen eta errendimendu akademikoaren ebaluazioan.

18. proposamena

Horrela, hurrengo ikasmailara pasatzean, irakasle talde berriak jorratzen eta sendotzen ahalko lituzke ikasleek aurreko ikasturtean gainditu gabeko irakasgaien –edo irakasgai zatien– funtsezko ikaskuntzak, hori ezinbestekoa bada ikaskuntza berriei ekiteko. Modu

horretan, saihestuko litzateke ikasmaita osoa errepikatzea eta ikasleek berriro ikasi behar izatea jada gairidituak dituzten irakasgaiak. Neurri horien guztien helburua litzateke **ahalbidetzea errepikapena benetan izan dadin ezohiko baliabidea**, hezkuntzako legeek adierazten duten gisan.

19. proposamena

Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du **autoebaluazio** prozesuak indartu beharra dagoela; izan ere, egungo egoeran, **ikasten ikasteko** hezkuntza prozesuak inoiz baino beharrezkoagoak dira. Ikasleek hausnarketa kontziente eta propio bat egin beharko lukete ebaluazio prozesuari buruz. Hausnartu beharko lukete egindako lanaz, eta haren helburu eta inguruabarrez. Hausnartu, ikasitakoaz, jakin-minaz, ikerketaz eta bakoitzak dituen ezaupideen garapenez; halaber, beren oraingo eta geroko beharrez.

20. proposamena

Gero eta argiago ikusten da egokiro koordinatu behar direla administrazio zentrala, autonomikoa eta tokikoa; orobat, gizarte-politikak eta hezkuntza-politikak. Era berean, uste dugu testuinguru sozialak laguntzen digula hobeto ulertzen hezkuntza sistemak zer arazo dituen honako erronka garrantzitsu honi aurre egitean: **behar diren hezkuntza politikak gehitu eta politika horiei eustea, ekitatea bermatzeko, eskola inklusibo baterantz jotzeko**, eskola porrota murrizteko, eskola-uzte goiztiarra gutxitzeko eta ikasle guztien errendimendua hobetzeko.

21. proposamena

Ebaluazioa hedatu behar da hezkuntza sistema osora: aztertu eta balioetsi haren ezaugarri orokorrak, ezarritako hezkuntza politikak, garatutako estrategiak eta erabilitako baliabideak. Ikasleen eta hezkuntza sistema osoaren ebaluazioak **lagungarria izan behar du heziketarako:** haren bidez hauteman behar dira, bai hobekuntza-prozesuak eta aurrerabideak, bai gabeziak eta disfuntzioak, dena ongi orientatu eta bide onera ekartzeko. Helburu diagnostikoa eduki behar du batez ere, baina, aldi berean, izan behar du jarraitua, integrala, orientatzailea, irizpideetan oinarritua eta kualitatiboa.

22. proposamena

Azkenik, nazioartean eta estatuan diagnostikorako egin diren ebaluazioek erakutsi dutenez, ikasleen emaitzetan eragin positiboa lortzen da familiek eta gizarte osoak erakusten badute **esperantza eta konfiantza handia dutela ikasle guztien arrakastan** eta irakasleen lanean. Gainera, ahalegindu beharko ginateke hezkuntzari buruzko **irakaskuntza- eta gizarte-kultura bat garatu dadin**, irmoki lan egingen lukeena ikasle guztiek benetan arrakasta lor dezaten derrigorrezko etapetan.

F) Itun sozial eta politikoa Nafarroako hezkuntzaren alde

Aurreko krisi ekonomikoak erakutsi zuen zer hauskorra den hezkuntzarako eskubidea. Eta nola aurrekontuetako murrizketek berriro ireki duten gizarte- eta lurralde-arrakala, itxita zegoela uste genuena, hezkuntzaren alorrean behintzat. COVID-19aren pandemia honek, bestalde, gabezia horietako asko nabarmendu ditu, zeinak gero eta gehiago larritu daitezkeen, ez badago oinarri hitzartu eta adostu bat hezkuntza egonkortzeko.

Ildo horretatik, hezkuntzako inbertsioa etengabe ari da murrizten Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuetan. Murrizketa horrek ekarri du hezkuntzako azpiegituren gabezia egotea, irakasleek lan baldintza okerragoak izatea, enpleguen ezegonkortasuna, kohesio sozialeko neurrien desagertzea, landa eskolak babesik ez izatea, parte-hartzearen ahulezia eta, azken batean, nahiz eta beharrezkoa izan, ez egotea gidaritza politiko bat hezkuntza komunitate osoa integratuko duena, horrela bermatuz kalitateko, ekitateko eta gizarte- eta lurralde-kohesioko hezkuntza eredu bat garatuko dela.

Horren ondorioz, ezinbestekoa da ITUN SOZIAL ETA POLITIKO handi bat egitea HEZKUNTZAREN ALDE, ESTATU mailan. Eta Nafarroako Foru Komunitatean; izan ere, oso garrantzitsua da bertako itun bat gauzatzea, hezkuntzaren alorreko eskumenak garatuz, Autonomia Estatutuarekin bat.

NAFARROAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO ITUN SOZIAL ETA POLITIKOAREN helburu nagusia da bermatzea hezkuntzarako eskubidea, Konstituzioan eta Estatutuan jasoa, errespetatzen direla ekitatearen, kalitatearen eta erantzunkidetasunaren printzipioak, eta hezkuntzako eragileek parte hartzen dutela, Nafarroa beti izan dadin komunitate kohesionatua, hala gizarteari nola lurraldeari dagokienez. Eta, halaber, estatuko eta nazioarteko erreferente bat, hezkuntzako berrikuntzari eta zerbitzu publikoaren ereduari dagokienez.

23. proposamena

Horretarako, **nahitaezkoa da sistemari ematea hezkuntza-eredu propio eta egonkor bat, aintzat hartuta Nafarroaren ezaugarri sozialak nahiz ekonomikoak eta bertako lurraldeen bereizgarriak.** Eta eredu horren garapena ez da egon behar, ez egoera ekonomikoaren mendean, ez Estatuko eta Foru Komunitateko gobernuek hartzen dituzten aurrekontu erabakien mendean.

Itunaren helburuetako bat da, halaber, Nafarroako gobernu desberdinen hezkuntza-politika eta erabakiak sar daitezela epe luzeko agenda batean, eta ez soilik legegintza baten barruan. Eta dagokien isla izan dezatela Foru Komunitateko Aurrekontuetan. Horren ondorioz, gobernuek hartzen duten edozein erabaki, Itunaren edukiari eragiten ahal diona, haren berrikuspenaren mendean egonen da.



Manuel Martín Iglesias

Nafarroako Eskola Kontseiluko burua